



**BIZKAIKO
EUZKO
GAZTEDEI**

IBAÑEZ DE
BILBAO 16
48001 BILBO
EUZKADI

94.403.94.00

www.bizkaikoegi.org

info@bizkaikoegi.org

Koordinazioa

Bizkaiko Erki Kontseilua

Laguntzaileak

Iker Almada

Borja Bilbao

Aldizkarian kolaboratzaile moduan aritzeko, goian jarrita dauden medioen bitartez jarri gurekin kontaktuan.

NOR GARA

Euzko Gaztedi, EAJren gazte erakundea da. EGK bere burua, euskaldun, demokratiko anitza, partehartzaile, humanista bezala jotzen du gizakiaren onurarako diren mugimendu guztien aldekoak gara. Gure lan-eremua gazteria izanik Euzkadi edo Euskal Herriaren subira-tausia berreskuratzea dugu helburu. Europearrak izatearekin batera bakea, tolerantzia eta Giza eskubideei errespetua nagusi diren markoa nahi dugu.



...iritzia

Behin baino gehiagotan entzun dut bakea lehentasuna dela, erabat ados; bake barik ez dago nazio – erakuntzarik, independentzia lortzeko tresna dena, ez dago bizitzerik. Bestalde, hadi egon behar gara, lantzen ari garen helburua, nahia eta pasioa ahazteko arriskua dago ta.

Beraz, noizbehinka gogoratu behar dugu, une hauetan bakea ezinbestekoa izanez, ez dela, horra hor, gure trenaren bidea amaitzen, eta honen ildoan, aritu behar dugu.


Aitortu behar da ere, gaur egungo egoera politikoa ez dela batere erraza, eta urte honen hasieran ikusi ahal izan dugu:

alde guztietatik jaso ditugun presioak nabarmenak izan dira, eta izaten jarraituko dira. Hau dela eta, gaur inoiz baino argiago izan behar dugu zein den abertzale eta


jeltzale izatearen zergatia: gure Euzkadiren nortasunaz, bake-bakean, gozatzea; gure Euzkadiren burujabetza; gure Euzkadiren independentzia.

Guzti hau lortzeko, EAJ – PNV eta Euzko Gaztedi beti izan dira medio, eta medio izaten jarraitu behar dugu. Bat bagara orain, bat izango gara bihar. Bakea eta burujabetza. Euzkadi.

Gora Euzkadi askatuta!



AZKENA



361

EGI-(Euzko gaztedi)



1. zenbakia

2007ko otsaila

EDUKIAK

LEGEBILTZARRERA BISITA **1**

EUSKAL ERAKUNDEEN ALDE **1**

BLOGOSFERA JELTZALEA **2**

LURGORRI **2**

EUZKADI-SERBIA **3**

IRITZIA **3**

IRUDITAN **4**

Aldizkari hau, Bizkaiko Erki Kontseiluak egiten dituen ekintza eta ekitaldi guztien berri emateko helburuarekin jaio da. Zuen partehartze eta iritziak garrantzitsuak dira. Kolaboratzaile moduan aritzeko jarri gurekin kontaktuan azkenengo orrialdean agertzen diren medioen bidez.



Aldizkari hau Creative Commons 2.5 lizentziarekin dago

EUSKO LEGEBILTZARRERA BISITA

Bizkaiko Erki Kontseiluak, gure euskal Erakundeak ezagutzeko helburuarekin, abenduaren 28an Euzko Legebiltzarrera bisita antolatu zuen. Egun horretan bertan, aurrekontuak eztabaidatzen ziren hau, legebiltzarrak urtean eztabaidatu eta onartzen duen legerik garrantzitsuenetakoa da. Bizkaiko eta Nafarroako EGKideak hara hurbildu ginen, eztabaida zuzenean ikusteko.

Bisitaren lehenengo agurrak, legebiltzarreko protokolo langileen aldetik izan zen. Ondoren, batzordeak biltzen diren gela batetan batu ginen eta *Zabalik* eta *Parte Hartuz*, Euzko Legebiltzarrak, erakunde horretan egiten eta sortzen diren notizi guztien berri ematen dituen webguneen funtzionamendua azaldu zizkiguten. Ga-

rrantzitsua iruditu zitzaigun, Legebiltzarraren aldetik teknologia berrietan egin den apostua. Era honetan, internetera sarbidea duen munduko erabilzaile orok, Euzko Legebiltzarrari buruz informazioa jaso dezake momentuan. Munduko beste parlamentuetan ez da horrelakorik egiten, eta gurea aintzindaria omen da horretan.



Euzko Legebiltzarrean, Lehendakaria eta Legebiltzarreko presidentarekin.

Ondoren eta azalpen hauen ostean, plenoa zuzenean ikusteko aukera izan genuen eta hau amaitutakoan batzargela bisitatzeko ere (argazkian).

Eskerrak eman, Legebiltzarreko kide eta langileei eta bereziki Leire Corrales; berari esker egin bisita egin genuelako.


GAZTEAK, EUSKAL ERAKUNDEEN ALDE!



Bizkaiko EGKideak, Euskal Erakunden aldeko sinadura bilketa egiten Gran Via kalean.

www.bizkaikoegi.org

Blogosfera jeltzalea



EGIkideok, gazte eta abertzale garen heinean, garai berrietara egokitu behar gara gure mezuak zabaltzeko (Bakea eta Independentzia!) eta hori lortzeko internet gure tresna izan daiteke

Blogosfera: blog guztiak komunitate edo sare bat bezala biltzen dituen terminoa da.

Blog (edo Weblog) bat, anotazio, istorio edo artikulua publikoak idazten diren Interneteko webgune bat da. Blogari bakoitzak anotazioak egunkari edo bitakora moduan idazten ditu eta hauek kronologikoki argitaratuz doaz bere blogean.

Web 2.0: Jendearen partehartzean eta informazio elkartrukitzean oinarritzen diren Interneteko web zerbitzuak definitzeko sortutako terminoa da.

Blog fenomenoak gero eta hedatuago dago, 2003. urtean hasi eta 2007. urtean goraz jarraitzen du, gero eta kolektibo boteratsua bihurtzen ari da, blogariok iritzi-emaike aktiboak gara, demokrazia eta parte hartzea eskatzen dugun talde berri bat. Euskal blogosfera zabalduz doa, baina oraindik blogari gutxi gabilta hor.

AEBetako hauteskundeetan blogosferaren boterea eta garrantzia ikusgai izan zen: Howard Dean, Bush eta Kerryren aldeko edo kontrako bitakorak izan ziren adibide batzuk.

Gure artean 2005eko hauteskunde kanpainaren inguruan Internetek eta blogek sekulako zeresana izan zuten. Hautagai guztiak euren webgunea izan zuten, eta kasu batzuetan landuak eta onak. Alderdi eta hautagaiek serio hartu zuten Internet.

Amerikan eta Europan sare politikoak osatzen ari dira (Moveon, blogs for Bush, Red Progresista, Red Liberal, Kataluniako Estatuto berriaren aldeko eta kontrako blogak, Xarxa de blocs sobiranistas, eta abar.) baina guk ez dugu oraindik gure sarea sortu.

Pausu hori eman behar dugu, taldeen edo norbanakoaren partehartzea beharrezkoa da elkarlan edo sare berri hau (Blogosfera JELtzalea) osatzeko, guztion artean: Alderdikideok eta Alderdizaleok, gure programak betetzeko, botoak eskatzeko eta eztabaidetzeko gaur egungo agora birtualetan.

EGIkideok, gazte eta abertzale garen heinean, garai berrietara egokitu behar gara gure mezuak zabaltzeko (Bakea eta Independentzia!) eta hori lortzeko internet gure tresna izan daiteke.

Gure blogosfera hedatzeko ikastaroak antolatuko ditugu baina zuen parte hartzea beharrezkoa izango da!

LURGORRI, EHUKo ikasle hauteskundeetan bigarren

Somos jóvenes, hoy en día esta palabra se relaciona con adjetivos nada halagüeños para nuestros intereses: apáticos, desinteresados, pasotas... y otros muchos.

Todo el que alguna vez ha estudiado o ha pasado por alguna Facultad o Escuela Universitaria ha visto que los alumnos entran, van a sus clases, salen y no hacen vida en sus centros, excepto los míticos jugadores de mus; ahí es donde entra Lurgorri. Nosotros somos quienes nos quedamos en el centro, lo dinamizamos, hacemos de intermediarios con los profesores, las direcciones de los centros, el resto de estructuras universitarias.

La apatía es un antónimo de lo que representamos quienes dedicamos nuestro tiempo a la universidad.



Lurgorriren irudia
www.lurgorri.org

Desde Lurgorri queremos que nuestro trabajo y nuestra gestión sean excelentes para que cuando los estudiantes de a pie vean nuestro lauburu rojo, lo relacionen no sólo con una asociación de estudiantes abertzales y comprometidos con nuestro país, sino con un grupo de alumnos que como ellos, tenemos exámenes y problemas con nuestros profesores, pero que en lugar de asumirlos pasivamente, los tratamos de solucionar implicándonos en la gestión universitaria, sea universidad pública o privada.

No hay que hacer que se vea Lurgorri como una formación de estudiantes integrados en un partido político concreto, sino que se vea como un grupo de estudiantes comprometidos con unas ideas de país que quieren que estén presentes en la universidad, y que posibiliten que nuestro pueblo avance por un mejor camino, con mayores prestaciones y mejores profesionales.

Por lo que el objetivo de Lurgorri, sin olvidar nunca que somos una asociación abertzale, es que los estudiantes que hoy en día consideran que el paso por la universidad es un mero trámite participen de la vida universitaria y confíen en poder cambiarla.

La universidad somos nosotros, la universidad es Lurgorri.

San Mamesen egon ginen!

Euzko Gaztedikook pasa den abenduak 28an Euzkadi-Serbia partiduan Euzkadi Selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzen egon ginen.

EGIkideok San Mameseko harmailetan Euzkadi bere osotasunean ordezkatzeko duen selekzioa etengabe animatu genuen pankartak eta pegatokaz.


Nahiz eta talde batzuek sasilurraldetasunak aipatuz partiduari babesik ez eman, argi

geratu zen euskal gizartearen oihua benetazko lana egiten duten pertsonen eta erakundeen alde doala.

Hau da gure selekzioa Euzkadi ordezkatzeko duen taldea. EAEko selekzioa? Tuteran, Baiona Sopela edota Azpeitiko jokalaria berdegunean edukitzea ez al da hori Euzkadi?

Partiduak 4-0 bukatu zuen, beraz giroa eta emaitza ezin hobeak izan ziren eta San

Mamesetik irtetzerakoan denon oihua eta pentsamendua berdina zan "Ofizialtasunerako prest nazio bat garelako!"



SAN MAMES

Iritzia: Burujabetza eta Bakea

Gure herria aspalditik bi kalte pairatzen ari da: bortizkeria eta burujabetza eza. Gaur, Euzkadi dugu kalte hauetako bat konpontzeko prozesu batean sartuta, denok bagaude prozesu honetan sartuta, eta oraindik ez dakigu zelan bukatuko den.

Hala ere, gauza bat izan behar dugu argi: bake prozesuaren emaitzak ezin du gure herriarentzat nahi dugun marko politikoa baldintzatu, bortizkeria hasi zen baino lehenagotik jasotzen ari garen egoeraren konponketa kondizionatu.

Zoritxarrez, bizi izan ditugun esperientziak kontuan hartuz, jakin badakigu Madriletik saiatuko direla arazo batekin biak konpontzen, bakearekin bat, dena amaitutzat ematen. Hona hemen, abertzale bezala, gure lan egiteko esparrurik garrantzitsua: ezin ditugu gure helburuak bidetik galdu, izan ere, Espainia eta Frantziatik saltzen zaigun erosotasunean erortzen bagara, akabo euskal nortasuna, akabo Euzkadi libre izateko aukera.

3+4=1
zazpiak bat!!

"Espainia eta Frantziatik saltzen zaigun erosotasunean erortzen bagara, akabo euskal nortasuna, akabo Euzkadi libre izateko aukera."

"La apatía es un antónimo de lo que representamos quienes de dicamos nuestro tiempo a la universidad."